



IPUINEN ZAINDARIA

Adin guztietarako opera

Musika: Miquel Ortega

Libreto: Andrés Martorell



GIDA DIDAKTIKOA

Pablo Ramos

AURKIBIDEA

1. Sarrera.....	3
2. Opera	4
2.2.Historia	5
2.3.Operaren edukiak	7
2.3.1. Musika	7
2.3.2. Testua	9
3. <u>L'opera</u> in musica	10
3.1.Eszena-zuzendaria	10
3.2.Jantziak	11
3.3.Eszenografia	12
3.4.Argiztapena	13
4. L'opera in <u>musica</u>	14
4.1.Ahots bakarlaria	14
4.2.Korua	15
4.3.Orkestra	16
4.4.Musika-zuzendaria	21
5. Ipuinen zaindaria operaren argumentua	22
6. Ipuinen zaindaria operaren musika.....	23
7. Jarduerak	24
8. Bibliografia	32

1. Sarrera

“Ipuinen zaindaria” Miquel Ortega eta Andrés Martorellen opera lana dugu, eta *“familiarentzako opera”* deritzon genero berezi horren baitan sartzen da, guri *“denontzako opera”* izena ematea gustatzen bazaigu ere, helduek zein hurrek ondo pasatzeko egina dago-eta.

OLBEren eta Nafarroako Ganbera Operaren arteko koprodukzioa da *“Ipuinen zaindaria”*, eta gure helburu nagusia opera gaztetxoengana gerturatzea da, antolatzen ditugun ikuskizun guztiena bezala. Bestalde, genero horren balio estetiko, artistiko eta kulturalen inguruan sentsibilizazioa ere lortu nahi dugu, baita zaletasun berriak bultzatu eta publikoaren fideltasuna garatu ere.

Gainera, ekoizten ditugun opera guztietan balio zehatzak txertatzen ditugu, ikusleei helarazi nahi dizkiegunak. Horiei esker, kontzeptu etiko unibertsalak ikasi daitezke, modu erraz eta dibertigarrian gainera.

“Ipuinen zaindaria” obraren kasuan, transmititu nahi da irakurtzeko zaletasunak beti gure alde egingo duela. Izan ere, milaka istorio bizi daitezke eta edozein egoeratan gauza asko ikasi. Modernitatearen aldeko apustua ere egin dugu, gizon eta emakumeen zereginak banatzen zituzten rol zaharkituak gainditzeko.

Gida hau opera ikusiko dutenei zein ikusiko ez dutenei zuzenduta dago. Lehenengoentzat sarrera gisako bat izango da eta, irakaslearekin batera gelan prestatuz gero, gehiago disfrutatuko dute eszena eta musikarekin antzokira etortzen direnean. Opera ikusiko ez dutenei, berriz, gida irakurtzea aholkatzen diegu, eta gero gerokoak...

2. Opera

Opera musika genero bat da, hainbat elementuk osatzen dutena: musikak, testuak, antzerkiak, dantzak, eszenografiak eta argiztapenak. Erabateko artea dela esan daiteke, arte osoena, arte mota guztiak bateratzen baititu.

Ez da betidanik existitu. Zerekin alderatzen dugun, gazteago edo zaharrago izango da, duela gutxi 400 urte bete ditu-eta.



2.2. Historia



Opera hitzak italieraz “*obra*” esan nahi du eta Italian sortu zen, Gonzaga familiaren Mantuako gortean. XV. mende amaiera aldera, madrigal antzerkia zen garai hartako garrantzitsuena. Madrigalak 5-6 minutuko abesti motzak ziren, istorio laburrak kontatzen zituzten eta polifonikoki kantatzen ziren, hau da, hainbat ahotsak aldi berean kantatzen zuten, baina bakoitzak doinu ezberdin bat.

1580. urte aldera, Florentzian jakintsu talde bat bildu zen, *Camerata Fiorentina* izenekoa, antzinako antzerki grekoa aztertzeke helburuarekin, ondoren eurek imitatzeke. Horrela konturatu ziren Cameratako kideak Greziako

antzezlanetan pertsonai bakoitzak ahots bakarrez abesten zuela, eta hori ez zettorren bat Errenazimenduko antzerki polifonikoarekin.

Cameratako kide ziren Ottavio Rinuccini poetak eta Jacobo Peri musikariak sortu zuten historiako lehendabiziko opera: *Dafne*. 1597an estreinatu zen Medicitarren Jauregian, Florentzian. *Dafne* operaren musika galdu egin da, baina autore horiek konposatu zuten *Euridice* 1600an, Frantziako Enrique IV.a eta Mediciko Mariaren arteko ezkontza ospatzeko. Baina 1607ko otsailaren 24an, Claudio Monteverdik historiako lehen operatzat jotzen den obra konposatu zuen: *L’Orfeo, favola in musica*, Gonzagako printzea eta Savoiaiko Margaritaren arteko ezkontzan antzeztu zena.

Horrela jaio zen opera. Claudio Monteverdik Camerata Florentinaren helburua bete zuen: abestuz hitz egitea; hau da, hitzak musikatik askatu egiten ditu eta, horrela, pertsonaiak sentimenduak era askean azaldu ditzake, orkestra txiki batekin batera, gainera. Hasiera batean, operak nobleen festetan baino ez ziren antzezten: ezkontzetan, ospakizunetan... eta istorioak mitologian oinarritzen ziren. Baina genero berri haren arrakasta guztiengana heldu zen, eta 1637ko Veneziako inauterietan, San Casiano antzokian, *Andromeda* antzeztu zuten, Francesco Manelliren obra. Ikusleek ordaindu egin zuten, eta opera negozio, hots, arte publiko izatera pasa zen.

Opera barrokoa gai mitologiko eta historikoetan oinarritzen den opera serioa da. Birtuosismo handiko idazkera du eta koloratura deritzon kantua asko erabiltzen da, hau da, bokal bera abesten da elkarren ondoko hainbat notatan zehar; horretarako beharrezkoa da ahots malgua, afinatua eta fiato luzekoa edukitzea. Emakumeak eszenara irten ezin zirenez, ospe handia lortu zuten evirado edo castratiek, hau da, txikitan zikiratutako gizonezkoek. Ez zitzairen laringea garatzen, baina birikietan emakumeek baino indar gehiago izaten zuten eta emakume ahotsa izatera heltzen ziren, erregistro gehiagorekin, gainera.

Ordudanik antzokiak ehundaka eta milaka pertsonarentzako lekua izatera pasa ziren. Operek orduak irauten zuten, aldaketak oso poliki egiten zirelako. Publikoak zutik egon behar izaten zuen eta normalean ez zen isiltzen ariak agertu arte. Hasieran, gizonaen ahots baxuak ziren nabarmenenak, baina geroago castratiak ziren nagusi. Orkestra txikia izaten zen eta eszenatoki aurrean egon ohi zen. Orkestrak ez zuen zuzendaririk edukitzen, eta operari hasiera emateko normalean hiria gobernatzen zuen familia noblearen bereizgarri zen banda-doinu bat jotzen zen haize-instrumentuekin.

Mota horretako ikuskizun serioen aurrean, XV. mende amaieran opera bufoa sortu zen Napolin. Opera serioetan ez bezala, opera bufoan pertsonaia garaikideak agertzen ziren taula gainean, eta bikote, hirukote eta laukoteek hartzen zuten parte. Opera bufoa opera serioaren atsedanak betetzeko sortu zela esan ohi da. Momentu hartatik aurrera, edonon zela ere italieraz egiten zen opera, italiarren modura.

Espainian zailtasun handiak izan zituen operak gortera heltzeko. Felipe IV.a zen errege, eta monarkiak oso diru gutxi bazuen ere, erregeari otu zitzaion Zarzuelako ehiza pabilioian opera emanaldi labur batzuk antolatzea, abestuz eta hitz eginez antzezten zirenak. Ordudanik, zarzuela izenaz ezagutu zen genero hura, emanaldiak egiten ziren lekuagatik. Horrela sortu zen genero berria, hasieran mitologia gaiak jorratzen zituen, geroi herrikoia bilakatu zen, musika folklorikoa inspirazio iturritzat hartuta.

Zarzuelak, beraz, operarekin baino antzekotasun handiagoa du Frantziako *opera comique*, Alemaniako *singspiel* edota Ingalaterrako *balade-opera* edo *masque* direlakoekin. Zarzuelan hitz egindako eta abestutako zatiak egoten dira; operan, berriz, bakarrik abestutakoak. Hala ere, zarzuelak ez du beti prestigioa izan; XIX. mendean eta, batez ere, XX. mende hasieran egon zen aktiboen, libreto eta musikagile onenekin. Azkenik, zarzuela bi ataletan banatu daiteke: alde batetik, ekitaldi bakarreko genero "txikia" eta, bestetik, 2-3 ekitaldiko zarzuela-



2.3. Operaren edukiak

2.3.1. Musika

Musika operaren osagai erabakitzailea da. Musikak ekintza sortzen du, zentzua ematen dio, eraldatu egiten du. Emozioak azalarazi eta garapen dramatikoaren aldarteak sorrarazten ditu.

Operaren musika egitura ez da beti berbera izan. Modu didaktikoan esan genezake barrokoan aria zela operaren funtsezko osagaia. Aria ahots bakarrerako idatzitako pasarte itxia da. Aria mota asko daude, baina barrokoan *aria da capo* egin zen ezaguna, bakarlariei euren burua nabarmentzeko ahots lan fin eta amaiezinak egitea ahalbidetzen zien errepikapena.



Barrokoko musikaririk nabarmenen artean Claudio Monteverdi dugu.

Klasizismoan, operaren egitura aldatu egin zen. Glucken erreformaren ondoren, errezitatiboak eta ariak laburtu eta kontzertanteak sartu ziren, duo, hirukote, laukoteekin eta abarrekin. Agian, ordezkariarik onena Mozart da.


Aro erromantikoaren hasieran, operaren musika egiturak eszena deritzona bereganatu zuen, hots errezitatiboak orkestra, aria eta cabalettekin uztartzen zituen konbinazioa.



Azken hori hasieran aria baten zati azkarra bazen ere, ondoren abeslariak nabarmentzeko baliabide bilakatu zen, haren eta ariaren artean koruak edota bigarren mailako pertsonaia batek abesturiko pasarte bat sartuta, abeslariak atsedean hartu zezan. Rossini, Bellini eta Donizetti nabarmentzen dira arlo honetan.



Aro erromantiko honetan, pertsonaien emozioak operaren egiturak baino garrantzi handiagoa hartuz zihoazen eta, esaterako, Verdik opera askotan eszenari eutsi bazion ere, gerturatzen ari zen gero Wagnerrek era ezin argiagoan adieraziko zuenera: leitmotiva (pertsonaia bati musika lelo bat esleitzea) nabarmentzen duen musikaren egitura batasunera.



Azkenik, erromantizismo osteko garaira iritsita, bertan indar handiz sortu zen *verismo* delakoa, honek ere leitmotiva erabiltzen zuen, ariek indarra galduz jarraitzen zuten bitartean, nahiz-eta ez guztiz, esaterako Wagnerrengan.

Mugimendu honetatik Giacomo Puccini nabarmendu behar dugu.



Eta orain *Ipuinen Zaindariaren* konpositoreaz hitz egingo dugu, Miquel Ortegaz, hain zuzen.



Miquel Ortega Bartzelonan jaio zen 1963an. 17 urterekin eta Vicente Sardinero baritonaren eskutik, pianista postu bat lortu zuen Gran Teatre del Liceun, eta geroago opera denboraldiko Maisu Bateratzaile aritu zen Madrilgo La Zarzuela Antzoki Liriko Nazionalan.

Orkestra zuzendaritza ikasi zuen Bartzelonan Antoni Ros-Marbarekin, eta podioan Donizettiren "*Don Pasquale*" operarekin debutatu zuen, Madrilen. Opera zuzendari onenetakotzat jotzen dute. Musikagile lanetan "*Bernarda Albaren etxea*" estreinatu zuen Errumanian 2008ko bukaeran. Gainera, ekitaldi bakarreko bi opera idatzi ditu, "*El dret patern*" (*Aitaren eskubidea*), berak 1980an idatzitako libretoarekin, eta "*Somni de nadal*" (*Gabonetako ametsa*), bere ideia batean oinarrituta eta Bruno Bruchek idatzitako libretoarekin. "*Gràciako kanpaia*" izenburua duen komedia liriko eta bi opera bukatu berri ditu: "*Titus Andronicus*", Shakespearen jatorrizkoan oinarrituta berak idatzitako libretoarekin, eta "*Olmedoko zalduna*", Pau Guixen libretoarekin eta Lope de Vegaren obra entzutetsuan oinarrituta. Madrilgo Errege Antzokian berriki estreinatu du Josep Carnerren "*Bestiari*" abesti zikloan oinarrituriko balleterako konposizio bat.

2.3.2. Testua

Ez da ahaztu behar opera guztiz abesturiko antzezlanak dela, eta definitzen duen hitzak obrari egiten diola aipamen: *opera in musica*; beraz, nabarmendu beharra dago libretoak, hau da, operaren testuak, duen garrantzia

Historian zehar asko izan dira libreto-egile famatuak. Lehen profesionalak Apostolo Zeno eta Pietro Metastasio izan ziren. Klasizismoan Lorenzo da Ponte nabarmentzen da eta erromantizismoan Arrigo Boito eta Francesco Maria Piave, baina euren libretoak idatzi dituzten konpositoreak ere izan dira, Richard Wagner, kasu.

Era berean, merezi du nabarmentzea libreto batzuk zenbait idazleren lanetan (Shakespeare, Dumas, Victor Hugo edo Bou Marché, besteak beste) oinarritu direla, nahiz-eta idazle horiek ez idatzi.

Ipuinen Zaindariaren libretoa Andrés Martorellek idatzi du, zinema, telebista eta irrati arloetako gidoilaria bera.

Zinemari dagokionez, egun Helena Taberna zinema zuzendariarekin dihardu lanean, eta hainbat film egin ditu harekin, adibidez, "*La buena nueva*", 2008ko azaroaren 14an estreinatutako filma edo 2002ko "*Yoyes*". Era berean, hainbat lanetako gidoiak egin ditu: "*Emiliana de Zubeldia*", dokumentala (1994), "*Alsasua 1936*", metraje erdiko filma (1994), "*Recuerdos del 36*" dokumentala (1994) edo "*Nerabe*" bideo-lana (1005).

Telebistako gidoilari gisa "*¡Vaya Semanita!*" saioan egin du lan, Pausokak ETBrentzat ekoizturiko entretenimenduzko teleaioan. Esketxen eta platoko gidoilari aritu da.

Irratirako honako hedabideetan egin du lan:

- Kontzertu, zinema, umore eta disko nobedadeei buruzko asteroko saioko gidoilari eta esataria Radio Pamplona-ko *Cuarenta Principales*/ (1994-1996).
- Umore, aisialdi eta musikari buruzko asteroko saioko gidoilari eta esataria Nafarroako Onda Cero-n (1992).
- "*El Plumero*" eguneroko umore saioko gidoilari eta esataria, Nafarroako Radio Nacional de España (1988-1991), baita 1993an ere.
- Irakasle Iruñeko Udalaren irratigintza tailerrean, "*Recreate*" udal kanpainaren baitan.

Kazetaritzari dagokionez, Nafarroako Unibertsitatean Lizentziatua da. Hainbat hedabideetan aritu da lanean eta hainbat argitalpenen zuzendaria ere izan da. "*El Bolo Feroz*" (1998-2008) aisialdi gidaren zuzendaria eta editorea izan da Ocio y comunicacion, SL bere enpresaren bitartez.

3. L'opera in musica

3.1. Eszena-zuzendaria

Eszena-zuzendaria antzezlanekin eta operak antzeztearekin lotutako guztia definitzen duen pertsona dela esan daiteke, eta agertokia estetikoki eta aktore eta abeslarien karakterizazioa zein mugimendua antolatzeaz arduratzen da.

Badago ezberdintasun bat antzerkiko eta operako eszena-zuzendaritzen artean: antzerkian lan hori luzeagoa da eta prozesu barnerakoagoa eskatzen du, operan, aldiz, testuak proposatzen duen partitura eta mugimendua antzetzu behar dira, betiere kontuan hartuta abeslarien aktore-prestakuntza normalean txikiagoa izaten dela.

Ipuinen Zaindarian, Pablo Ramos da eszena-zuzendaria:



El lebril blanco taldeko zuzendaritza-laguntzailea eta aktorea izan da eta antzerki klasikoa zuzendu du. 90eko hamarkada hasieran antzerki klasikoa zuzentzen hasi zen eta Operaren Lagunen Gayarre Elkartearen operetako zuzendaritza- eta produkzio-laguntzailea izan zen.

Nafarroako Ganbera Operaren sortzailea, horren ikuskizun guztiak zuzendu ditu: *Hamelingo txirularia*, *Enperadorearen jantzi berria*, *Ali Baba eta berrogei lapurrak*...

Formatu handiko ikuskizunen arduraduna izan da, besteak beste honakoetan: *Passion*, Iruñeko katedralean; *Auntitz Urtez* ikuskizuna Barañaingo Auditoriumean; Iruñea 2016ko Europako Hiriburu hautagaitzarako ikuskizuna eta *PXXI* Gayarre antzokian, Alberto Bernal eta Ensemble Laboratoriumen musikarekin.

Egun, gaur egungo musikaren barruan ere badihardu eta eszena eta performance proposamenak egin ditu Alacanteko 2010eko Egungo Musikaren Jaialdian, Buenos Aireseko *Instrumentos solos* Jaialdian eta beste hainbatetan.

3.2. Jantziak

Pertsonaiak jantzteaz arduratzen den pertsonak interpretatzen du eszenazuzendariaren ideia istorioa estetika edo garai jakin batean kokatzeko eta protagonistek jantziko dituzten arropen diseinua eta prestaketa egiten du.

Ipuinen Zaindaria operako jantzien ezaugarri nagusia da birziklaturiko materialaz egin direla; hau da, xehetasunez behatuz gero, jantzietan globoak, gomazko eskularruak, txirringen gurpilak... daude.

Hona hemen figurin baten diseinuaren adibide bat: untxia (eskuinean) eta jada egindako arropa jantzita dagoen pertsonaia (ezkerrean).



Ipuinen Zaindariko figurin-egilea Edurne Ibañez da, 1979ko apirilaren 21ean Iruñean jaioa.

Hainbat sari irabazi ditu: diseinatzaile nazional gazte onena, Elio Berhanyerrek bezalako pertsona entzutetsuek osaturiko epaimahaiaren aurrean; *Art&Fashion* Nazioarteko Lehiaketako lehen saria; Javier auditoriumeko Behe Mendi Elkartearen Sormen saria; Bilboko Creamodako Libin by Deia saria; Gasteiz Oneko Pasarelako bilduma onenaren saria ...

3.3. Eszenografia

Eszenografia agertokiak duen soinekoa da. Istorioa osagai horien gainean garatzen da eta eszenaratzen den operako mundua antzetzten du. Orain “*eszena-gunea*” esaten zaio. *Ipuinen Zaindarian*, eszenografiak ipuin-liburu handi baten barnealdea den mundu magiko batera eramaten gaitu, liburutegi batetik abiatuta. Irudimenean baino ez dagoen mundua. Hemen bi eremu aurkituko ditugu: liburutegia eta ipuin-liburuaren barnealdea, bere magia guztiarekin.



3.4. Argiztapena

Agertokian gertatzen ari dena ikusteko beharrezkoa da argia. Baina argiztapena ez da argia bakarrik. Argiztapena ikuskizunak izango duen kolorearen diseinua da, erabiltzen diren fokuen eta efektuen konbinazioaren arabera. Hona hemen *Ipuinen Zaindario* argiztapenaren adibide bat.



Argiztapenak paisaia beroetara eraman gaitzake, eguzkia dagoen egunetara edo gau ilunetara. Funtsezko osagaia da operan. Argiztapena ez da operan betidanik izan. 1849an egin zen argi elektriko bidezko argi efektu bat: goizaldeko egoera bat zen, arku-lanpara bat islagailu paraboliko batean sartuta, Meyerbeerren “*Profeta*” operan, Pariseko Operan. Hala ere, baliabide hori efektu kolpe gisa baino ez zen erabili, antzokietako argiztapen elektrikoa 30 urte geroago iritsi baitzen.

4. L'opera in musica

4.1. Ahots bakarlaria

Operaren ahotsak femenino eta maskulino gisa sailkatu ditzakegu, hirugarren ahots bat, baina ez bakarra, kanpoan utzi beharko genukeen arren, kontratenor eta sopranistei dagokiena, hain zuzen.

Ahots maskulinoak:

- Tenorra: Altuena da eta normalean do² eta do⁴ arteko erregistroa abesteko gai. 4 mota daude: arina, lirikoa, *spinto*-a eta dramatikoa. Ahots honen adibide bat Donizettiren *Elisir d'amore*ko Nemorino da.
- Baritonoa: Tarteko ahots maskulinoa, sol² eta la⁴ artean. Esaterako, Verdiren *Rigoletto* pertsonaia.
- Baxua: Ahotsik baxuena, fa¹ eta mi³ artean. Baxu bat Mozarten *Txirula Magikoko* Sarastro litzateke.

Ahots femeninoak:

- Sopranoa: Altuena da. Arina, lirikoa, *spinto*-a eta dramatikoa izan daiteke. Do³-mi⁵ erregistroa hartzen du. Esaterako, Pucciniren *La Bohémeko* Mimi.
- Mezzosopranoa: Sol² eta la⁴ arteko tarteko ahotsa, Bizeten *Carmen*, adibidez.
- Kontraltoa: Ahotsik baxu eta indartsuena, mi² eta sol⁴ artean. Oso zaila da opera erreperitorioan mota honetako ahotsak aurkitzea, baina hor dugu Ponchielliren *Gioconda*, adibidez.

4.2. Korua

Korua opera batean aldi berean abesten duen pertsona taldea da. Korua Grezian sortu zen antzerkian, eta ahots bakarrean abesten zuten gizon eta emakumeen taldeak ziren. Hala ere, orain, operan, koruak lau edo bost ahotsez osatzen dira. Tenorrak, baritonoak, baxuak, sopranoak eta mezzosopranoak. Badaude ahots bakarrean (monodia) abestu dezaketen haurren ahots zurien koruak edo forma polifonikoan hainbat ahotsetan abestu dezaketenak.

Koruaen historiari erreparatuta, ez da beti itzal handikoa izan. Barrokoan korua desagertu egin zen, nagusiki arrazoi ekonomikoengatik. Glucken erreformak berriz sartu zuen eszenan, eta Mozartek pasio eta nortasunez egin zuen. Ondoren, opera frantses handiak eta, batik bat, Verdik eta Wagnerrek nahitaezko bihurtu zuten. Verdi izan zen unerik garrantzitsuenak eman zizkiona. Horrela geratu dira historiako *Nabucco* operako esklaboen korua edo *Trobadore* operako ijitoena.

Ipuinen Zaindaria operan 23 neska-mutilek osatzen dute korua, ahots bakarrean abestuta, eta batik bat, dantza egiten dute. Musikaletan agertzen diren dantza-taldeen oso antzekoa da. Koruko kide guztiak musika ikasleak dira eta proba zorrotzak egin ondoren hautatu dituzte. Kide horiek guztiek 10 eta 17 urte bitartean dituzte.



4.3. Orkestra

Orkestra hitza grekotik dator eta *dantzaleku* esan nahi du. Definizio hau K.a. V. mende ingurukoa da, antzezenak aire zabaleko antzokietan egiten ziren garaikoa. Antzezteko eremu nagusiaren parean gune bat egoten zen abeslari, dantzari eta instrumentuentzat. Gune horri *orkestra* zeritzon.

Orkestra operaren partitura jotzen duen musikari taldea da. Barrokoan oso jendetsua izan ohi zen, apur bat kaotikoa, musikari bakoitzak bere eran jotzen baitzuen, eta zuzendaririk ez zegoenez, kaotiko samarra izan behar zuen. Orkestra guk ezagutzen dugun moduan Mannheimen gortean sortu zen Johann Stamitzen lanari esker. Horrela, orkestrak hainbat instrumentu-familia ditu: harizkoak (biolina, biola, txeloa eta kontrabaxua), haize-zurezkoak (txirula, oboea, klarinetea, fagota), haize-metalezkoak (tronpa, tronpeta, tronboia eta tuba) eta perkusioa (tinbalak, lira, tam-tama, marinba eta abar).

Orkestra mota ugari daude. Neurriaren arabera ganberakoak, klasikoak edo sinfonikoak izan daitezke. Osatzen duten instrumentuen arabera: haize edo metalezko orkestra. Bitxikeria bat: orkestra sinfoniko eta filarmonikoaren arteko aldea jabetzan dago, eta ez neurrian. Filarmonikoak XIX. mende erdian sortu ziren dirua zuten eta orkestra bat eratu eta musikariak kontratatu zitzaizketen zaletuen elkarteetan. Elkarre Filarmonikoak ziren. Egun badaude oraindik horietako batzuk.

Ikuskizun honetarako orkestra Nafarroako Ganbera Operako Ganbera Orkestra da. Ganbera orkestra denez, 20 musikari baino gutxiagoko taldeak osatzen du. Kasu honetan hamahiru dira eta denak dira kontserbatorioetako irakasleak eta, gainera, beste orkestra entzutetsu batzuetako bakarlariak, esaterako Nafarroako Orkestra Sinfonikokoak. Orkestrak 1. biolina, 2. biolina, biola, txeloa, kontrabaxua, oboea, fagota, txirula, klarinetea, tronpeta, tronpa, perkusioa eta pianoa ditu.



Orkestra honetako instrumentuak:

Hari-instrumentuak

Familia honetako instrumentuek bertako harien dardararen ondorioz sortzen dute soinua. Hiru eratakoak izan daitezke: hari igurtzikoak, biolina, biola eta txeloa bezala; hari kolpekatukoak, pianoa, kasu; eta hari eutsikoak, harpa bezala. Hemen hari igurtziko instrumentuak baino ez daude.

- Biolina: Txikiena da. Bostunetan afinaturiko lau hari ditu. Sol giltzan idazten da.



- Biola: Egun ezagutzen duguna XVI. eta XVII. mendeen artean jaio zen. Biolina baino apur bat handiagoa da. Do-sol-re-la notekin afinatzen diren lau hari ditu (baxutik altura bostuneko tarteetan igota).



- Biolontxelo edo txeloa: Neurriari eta erregistroari dagokienez, biola eta kontrabaxuaren artean dago. La-re-sol-do notetan afinaturiko lau hari ditu. Beti uste izan da gizakion ahotsaren antzik handiena duen instrumentua dela.



- Kontrabaxua: Oso handia da. Oro har lau hari izaten ditu, goranzko laudunetan afinatuta (mi-la-re-sol, 4. haritik (baxuenetik, 1.ra (altuenera)).



Haize-instrumentuak

Tutu baten barruan dardara egiten duen aire zutabe baten bitartez sortzen dute soinua. Bi eratakoak izan daitezke: zurezkoak edo metalezkoak. Haize-zurezkoak: horrela deituak, tradizionalki zurez eginak zeudelako.

Haize-zurezkoak

- Zeharkako txirula: Ez dira metalezkoen familiakoak, zurezkoenak baizik, antzina aipatu material horrekin egiten baitziren. Eta euren soinua aipatu instrumentuena bezala sailkatzen delako.



- Fagota: Mihi bikoitzeko instrumentua da. Gutxi gorabehera 156 cm. ditu garaieran eta 250 cm. luzeran. Fagota haize-instrumentuen eremu baxua hedatzeko musika beharretik dator.



- Oboea: Oboe izena *hautbois* frantses hitzetik dator, eta "zur garaia, altua" esan nahi du. Instrumentuaren erabilera arretatsuak eta airearen presioak tinbre aukera eta dinamiko zabala jotzea ahalbidetzen dio jotzaileari. Oboea jotzeko instrumenturik zailenetakotzat jotzen da.



- Klarinetea: Mihi soileko instrumentua, zurezko guztien arteko hedadurarik handiena du; hau da, nota altuenak eta baxuenak sor ditzake. Mihi soila ebonita edo kristalezko ahoko bati lotuta dago brida baten bidez eta musikariak bertan putz egiten duenean tutua dardarazten du.



Haize-Metalezkoak

- Tronpeta: Ahoko bat du eta bertatik airea botatzen da, pistoiek instrumentuaren notak sortzeko balio dute. Tronpeta barrokoa luzeagoa da, hortaz, altuagoa, eta ez du pistoirik.



- Tronboia: Pistoiaik beharrea hoga bat erabiltzen duen metalezko instrumentu bakarra da. Oso ezberdinak dira tesiturei dagokienez, nahiz-eta orkestran gehien erabiltzen dena tenorra den, eta batzuetan baxua. Ahokoa tronpetaren antzekoa da. Jotzaileak, tutua mugitzean, luzatu egiten du hodia tonuerdietan, zazpi jarreraren arteko bakoitzean harmonia sorta bat eragiteko, beraz, nota bakoitza zailtasunik gabe sortzen da.



- Tronpa: Instrumentu zaharrena da. Zaldizko martxetan eta haien gainean ibiltzeko erabiltzen zenez, borobila egin zen jotzeko erraza izan zedin. Hasieran animalien adarrekin zegoen eginda. Jotzeko, musikariak eskuineko eskua kanpaiaren barruan sartu eta sordinarena egiten du, ondorioz, eskuaren jarreraren arabera, instrumentuaren tinbrea ezberdina da. Beste eskuarekin notak sortzen dituzten balbulei eragiten zaie.



Perkusiozko instrumentuak: afinatu eta afinatu gabeetan bereizten dira. Afinatuen artean hauek ditugu orkestran:

- Tinbala: Kobre edo beirazko zuntzez egindako kaikua da, azal edo plastiko tenkatuz osaturiko larruak estalia. Tinbalak larrua tenkatuz edo askatuz afinatzen dira, hiru prozedura bidez: biraderaz, pedalaz edo giltzaz.



Pianoa: Edo piano-fortea hari kolpekatuko teklatu instrumentu gisa sailkatzen da, erabilitako sailkapen sistemaren arabera. Hari anitzeko harpa kromatiko batez osatuta dago, isilgailuak gehitu zaizkion zeharkako perkusiozko mekanismo batek eraginda.

Mendebaldeko musikan, pianoak ahalbidetzen du bakarlari gisa, ganbera musikarako, akonpainamendurako edo musika sortzen edo entseguetan laguntzeko jotzea. 1700 inguruan asmatu zuen Bartotomeo Cristofori paduarrak. Aurrekarien artean zitarra, monokordia, klavikordia eta klabezina ditu. Instrumentu honetarako bereziki sorturiko lehen konposizioak 1732 inguruan egin ziren, horien artean Lodovico Giustiniren pianorako 12 sonatak nabarmentzen dira, *Sonate da cimballo di piano e forte detto volgarmente di martelletti* izenburua dutenak. Harrezkero, asko izan dira pianorako lanak egin dituzten musikagileak eta, kasu ugaritan, pianistak izan dira.

Frédéric Chopin, Franz Liszt, Wolfrang Amadeus Mozart edo Ludwig van Beethoven nabarmentzen dira horien artean. Musika erromantizismoaren instrumentu adierazgarriena izan zen eta paper garrantzitsua izan du gizartean, bereziki XVIII. eta XIX. mendeko klase aberatsenen artean: instrumentu nabarmena da Jazzean.



4.4. Musika-zuzendaria

Musika-zuzendaria arduratzen da dena ondo entzun eta musikagileak partituran jasotakoaren arabera izan dadin. Batzuetan, musika-zuzendariak partituran jasota dagoen bezala zuzentzen du, eta beste batzuetan, aldiz, interpretazio bat burutzen du, hau da, bere ukitua ematen dio. Orkestra zuzentzen du eta ikuskizun bateko musikari, koruko abeslariari eta orkestrari dagokien guztia erabakitzen du.

5. Ipuinen Zaindaria operaren argumentua

Ipuinen Zaindaria, musika eta kantuaren berezko balioez gain, irakurketak eta laguntasunak arazo guztiei aurre egiteko duten garrantzia nabarmendu nahi du.

Ariadna eta Horazio, 14 eta 15 urtekoak, egungo bi gazte dira. Neska gelako azkarrena da, eta horregatik gainerakoen mespretxua sentitzen du. Horazio, ordea, mutil ezagunena da, baina desastre hutsa ikasketetan, eta gorroto ditu liburuak. Ariadnak, isilpean Horazioz maiteminduta dagoena, ikasketetan laguntzea proposatuko dio, eta horretarako liburutegi zaharrean egingo dute hitzordua. Bertan gertakizun magiko bat jazoko da, Antonius agertuko baitzaie, Ipuinen Zaindaria irudikatzen duen harrizko bustoa, umeez esnatuta hitz egiten hasiko zaiena.

Antoniussek *Ipuin Guztien Liburuan* sartu eta bertan harrapatuta geratu ziren haurren kondaira kontatuko du. Horazio pozik agertuko da liburu batean sartzeko ideiarekin, liburua irakurri beharrean. Ariadna saiatu egingo da ideia hori burutik kendu dezan, sekula bat ere irakurri barik ipuinetan sartzea arriskutsua izan daitekeela esanda. Horaziok tematuta jarraitu eta biak sartuko dira *Ipuin Guztien Liburuan*, Antoniusen bidez.

Behin liburu barruan, Ariadna eta Horazio ipuin famatuenetariko batzuen artean ibiliko dira, Edurnezuri, Pinotxo, Hansel eta Gretel edo Loti Ederrean barrena, kasu, era guztietako egoerak sortuta eta umorea, misterioa eta abentura aurkituta. Egungo bi gazteak eta ipuinen ingurune magikoa aurrez aurre jartzeak ipuin tradizionalak “*eguneratzeko*” edo egungo garaietara ekartzeko ere balioko du, egun gure zibilizazioan sozialki onarturiko balioetara hurbiltzearen. Ipuinei dagokienez, Horazioren ezjakintasunak eta irakurtzeko duen interes eza orokorrak egoera arriskutsuak eragingo dituzte. Arriskua areagotu egingo da liburuan betiko harrapatuta geratu daitezkeela ulertzen dutenean. Ariadnaren laguntzarekin baino ezin izango dira berriz benetako mundura atera. Azkenean, Horaziok irakurketaren garrantzia ulertuko du eta Ariadnak leku bat lortuko du haren bihotzean. Sarbide-bidaia egin dutenez, orain hobeto prestatuta daude bizitzari aurre egiteko.

6. Ipuinen Zaindaria operaren musika

Horrela ikusten du Miquel Ortega musikagileak.

“Ipuinen Zaindaria operarako komenigarritzat jo dut oso zuzeneko musikaren nire ikuspegitik jarraitzea, hau da, publikoarekin berehala konektatzeko, Bestiarioa abesturiko balleterako egin nuenaren antzera. Behin esan nuen zinemako musikak operaren eta arlo sinfonikoaren tradizio handitik edan zuela, batik bat poema sinfonikotik, programa musikatik, eta ondorioz, argumentu bati lotutakotik.

Musika eta eszena sorkuntzan nahasmena nagusi den une honetan, uste dut badela garaia zinemak operari honek utzi ziona itzuli diezaion, eta une honetan interesgarriagoa da zinemako musikagile gehienen hizkuntza operakoenena baino, salbuespenak salbuespen.

Ipuinen Zaindaria operako musika soinu-banda bat da, hots, protagonisten gertakizunak irudikatuz doan musika. Puccinik edo Verdik ere beren lanetan egiten zuten gauza bera da, “avant la lettre” soinu-bandak, egoerarako musika deskribatzailea, publikoak sentituko zituen doinuez beteta eta egoera hau ala bestea edo aldarte hau ala bestea adieraziko ziguten leitmotivez beteta”.

7. Jarduerak

Gesamtkunstwerk hitz alemana, *erabateko artelana* esan nahi duena, Richard Wagner opera-konpositoreak sortu omen zuen, musika, antzerkia eta ikusteko arteak bere baitan hartzen zituen artelan mota bati buruz hitz egiteko erabili baitzuen: opera.

Wagner oso kritikoa zen bere garaian gailentzen zen opera motarekin, uste baitzuen gehiegi erreparatzen ziola musikari, gainerako osagaiak, eta batez ere drama, horren mende jarrita. Wagnerrek garrantzi handia ematen zien giroa sortzeko osagaiei, esaterako, argiztapenari, soinu-efektuei edo aulkien antolaketari, ikusleen arreta guztia agertokian egon eta dramam erabat sartu zedin lortzearren. Ideia horiek iraultzaileak izan ziren bere garaian, baina opera modernoak laster bereganatu zituen.

Operak, esan bezala, arte guztietako osagaiak dituenez, gida honetako jardueren baitan arte guztietara iristen saiatuko gara, eta gure proposamena ikasle guztien artean opera bat sortzea da.

Opera baten jaiotza

1. Aukeratu behar den lehenengo gauza operaren gaia da.

Kontua musika eta antzerkia eginez jolastea denez gero, haurren munduarekin zerikusia duen gai bat aukeratuko dugu: Hona hemen hainbat proposamen:

Txanogorritxu



Oihaneko liburua



Pinotxo



2. Garrantzitsua da gaia aukeratzeko denak ados egotea. Orientabide moduan Pinotxo proposatzen dizuegu; istorioa oso polita da eta, gainera, jada konposatuta dagoen musika bat izan dezakegu.
3. Denek konposaturiko lehen opera honen iraupena motza izango da, askoz jota 5 minutukoa. Beraz, nahitaezkoa da kontatzeko istorio bat edukitzea, eta Pinotxorena honakoa da:

Gepeto artisauak Pinocchio deituriko panpina bat sortuko du eta maitagarri urdin batek bizitza emango dio. Pinocchio eskolara joango da eta herriko plazatik igaro ondoren, eta bertan panpina gisa dituen trebetasunei esker txanpon batzuk lortu eta gero, katu eta azeri azkar batzuek dirua lapurtu eta zuhaitz bati lotuta utziko dute. Pinocchiori, gezurra esaten duenean, sudurra hazten zaio, eta maitagarri urdinak hala egiaztatuko du, panpinak esaten diolako dirua lapur batzuek kendu diotela errekan eta eskolara joan dela, bere benetako asmoa dibertsioaren irlara joatea bazen ere. Pinocchio etxera iritsitakoan, Gepeto bere bila joan dela eta balea batek irentsi duela jakingo du. Haren bila joan eta salbatu egingo du, ondorioz, etxera itzulitakoan, maitagarri urdinak benetako haur bihurtuko du.

4. Libretoa. Literatura ikasgaiko hurrek operaren libretoa egingo dute istorio honekin. Opera baten libretoa abeslariek kantatzen duten testua da. Esaterako, *Zaindaria*-ren operako libretoan, Pinotxok Horazio eta Ariadnarekin topo egiten duen zatia.

PINOCHO

(con acento italiano)
Porca miseria. ¿Qué cosa e questa? ¡Me han despertato en mitad de la siesta!

ARIADNA

(a Horacio)
¡Es Pinocho!

HORACIO

Ah, sí...¿Quién?

ARIADNA

Pinocho, un muñeco de madera, que gracias a un Hada madrina...

Pinocho se fija en Ariadna, y corta la conversación.

PINOCHO

Ma qué veo. ¡Una ragazza belísima!

Besa la mano a Ariadna. Habla con gestos de galán.

PINOCHO (continúa)

(de carrerilla)
Tu no sei di per cuí. ¿Cherto? ¿Come ti kiami? ¿Sei estudiante? Prendiamo un café, sposate con me.

Intenta besarla. Ariadna se lo quita de encima.

ARIADNA

¡Un respeto!

HORACIO

(al público)
¡Italianos! Siempre pensando en lo mismo.

ARIADNA

(a Pinocho)
¿Tú no deberías estar en la escuela?

PINOCHO

Sí, ma... Non só dove si trova.

HORACIO

(a Ariadna)
¿Qué dice el espaguetti este?

ARIADNA

Dice que no sabe dónde está la escuela.

(a Pinocho)

¿Es que no has visto el letrero?

Ariadna señala un cartel de "Scuola", con una flecha indicadora.

5. Badugu libretoa, beraz, joan gaitezen orain musikaren bila. Musika ikasgaikoek, irakaslearekin batera, euren jakintza guztia erakutsi eta orkestra bat osatu dezakete gelako instrumentuekin. Helburua libretoari musika jartzea da. Oso zaila izan ez dadin, Miquel Ortegak Ipuinen Zaindaria operan Pinotxoren pertsonaiarentzat konposatu duen ragtimea aukeratzea gomendatzen dizuegu.

519 (Silbando.)

Pin. me - ta.

523

Pin.

Pin.

527

530

533

536

540

6. Bikain! Baditugu Pinotxo operako libretoa eta musika, orain pertsonaiak behar ditugu: Gepeto, Pinotxo, Maitagarri Urdina eta lapur biak. Ragtimeko musika konpasen arabera erabil dezakezue, pertsonaiek euren paperak abestu ahal izateko. Proposamen gisa, hona hemen etxera itzulitakoan eta Gepeto ez dagoela ikusten duenean, Pinotxok abesten duen aria.

471 *mf*

Pin. Yo soy Pi - no-cho, soy u - na ma-rio - ne - ta. Soy un mu-

475

Pin. ñe - co, un pe - le - le, un mo - ni - go - te. Y aun - que a ve - ces me - rez - co un buen a - zo - te, yo sé bai-

479 (Baila)

Pin. lar y to - car la pan - de - re - ta. Yo soy la bo - la, y el mun - do es mi ru - le - ta. Soy un po - bre in - fe-

483

Pin. liz, un pas - ma - ro - te. Ma - de - ra de los pies has - ta el co - go - te. Ser un ni - ño nor-

487

Pin. mal, e - sa es mi me - ta.

7. Baditugu musika, testua eta abeslariak. Orain jantziak eta eszenografia behar ditugu, plastika irakasleak hautatzen dituen ikasleek presta ditzaketenak. Hemen duzue *Pinotxo* operaren eszenografia izan daitekeenaren adibide bat.



Lan hau egiteko ez duzue material ugari erabili behar, bestela garestia izango litzateke. Bide batez, ez dizuet esan, baina opera oso garestia da. Zenbait bastidore txiki egin ditzakegu, lau arrastelekin bakoitza, errektangelu bat osatu arte. Angeluak lotzeko zenbait eskuaira erabiliko ditugu, eta lurrean bermatzeko, eskuaira gehiago. Irakaslearen laguntzarekin mota honetako 3 edo 4 panel eraiki eta paper zuriz estal ditzakezue kanpotik. Marrazkilari trebeak bazarete, horien gainean marraztu eta etxeak, bideak edo Gepetoren tailerra egin ditzakezue. Jantziatarako, figurinak deritzenak egin ditzakezue, alegia, pertsonaiek daramatzaten jantzien irudiak. Zaindaria operako figurinen adibide bat duzue hemen:



Marraztu figurinak eta ondoren, etxeko arropa zaharrez, gurasoei eskatu diezazkiekezuenak, prestatu jantziak.

8. Bikain! Baditugu opera, jantziak eta eszenografia. Orain goazen entseatzera.

Eszena-zuzendari bat beharko dugu, pertsonaiek, musikari eta testuari dagokienez, nola jokatu behar duten esateko. Zuen arteko norbait aukera dezakezue, adibidez, antzerkia gehien maite duena.

Musika-zuzendaria ere beharko dugu, operako musika aspektu guztiez arduratuko dena. Gainera, abeslariari esango die nola abestu behar duten eta musikariari nola jo behar duten. Musika eskolako oinarrizko instrumentuekin, nagusiki haize-instrumentu eta perkusiokoekin, orkestra bat osatu beharko duzue.

9. Denbora eskaini behar diezue entsegueri, ikuskizuna ezin hobeto egon arte. Orain zera baino ez da geratzen...
10. Antzezpena! Saiatu ekitaldi aretoan egiten, eskatu baimena irakasleei eta antzeztu opera: *Pinotxo!*

8. Bibliografía

- GROUT, D.J. Historia de la música occidental. Alianza Editorial. Madril, 1986.
- MARCO, T. El siglo XX. Historia general de la música, IV. Alpuerto. Madril, 1968.
- MILCHEUS, U. Atlas de la música I y II. Alianza Editorial. Madril, 1993.
- NAVARRO, C. eta TOBELLA, M. Los supermúsicos. RBA. Madril, 2000.
- PALACIOS, F. eta RIVEIRO, L. Artilugios e instrumentos para hacer música. Ópera tres Ediciones Musicales. Madril, 1990.
- RANDEL, D.M. Diccionario Harvard de Música. Alianza. Madril, 1977.
- SADIE, S. Diccionario Akal/Grove de la Música. Ediciones Akal. Madril, 1993.
- SHEHAN CAMPBELL, P. “La diversidad de culturas y los mundos musicales en las escuelas americanas”, in EUFONIA, Didáctica de la Música. 6. alea, 1997ko urtarrila. 7-14 orr.
- VALLEJO, P., “Hacer música “sin saber música”: África como modelo”, in EUFONIA, Didáctica de la Música. 6. alea, 1997ko urtarrila. 37-43 orr.
- HAINBAT EGILE, Música. Enciclopedia visual Altea. Madril, 1989.